



KATEBEGIA

Politikaren eta literaturaren (h)egian



Hasiera » (A)iruzkin literarioak » *Idazlea bizitzaren obsesioak harrapatua*

API
01

0

Idazlea bizitzaren obsesioak harrapatua

Atalak: (A)iruzkin literarioak



Ezpainak arrainak bezala, Karlos Gorrindoren hirugarren nobela da.

Ezpainak arrainak bezala

Karlos Gorrindo

Erein

Ezpainak arrainak bezala nobela eserialdi bakar batean irakurri dut. Zehatzago esanda, oporraldiko etzanaldi batean. Horrek nobelaren dohainetako bat adierazten du. Baditu beste dohain batzuk ere, barbarako, nobelak egungo pertsonon diskurtso antzua –intelektualen diskurtsoaz ari naiz bereziki– salatzen du, gutxiesten du. Eleberriaren alderdi hori ongi neureganatu badut, “gizakion eta arrainen ezpainen mugimenduak erkatu genitzake”. Itxura batez, mugimendu antzuak. Neronek halaxe erkatu ditut behinik behin, nobela amaitutakoan. Inpresioak inpresio, inpresio gehiago eman aurretik, hona istorioari buruzko hainbat

MIKEL ASURMENDI

1958an jaioa. Zumarragarra eta urretxuarra, nahiz batzuentzat ezinezko bitasuna izan. **ARGIAko kazetaria**. Politika esparrutik literatura eremura doan jendarteko gaiak jorratzen ditut normalean, Hendaia munduaren epizentroa izaki.

Jarraitu @masurmendi
@masurmendi(r)en Txioak

Bilatu:

Bilatu

KATEGORTAK

ezpain-kada:

“Protagonista Gorka da. Marta du bikotekidea. Ezkonduta daude. Gorkak Marta maite du. Martak ez du Gorka maite. Edo, ez dute modu berean elkar maite, behintzat. Gorkak egun osoa buruan darama emaztea. Martak ez senarra. Idoia lagun kuttunak betetzen du Martaren gogoa denbora gehien.

Gorka seme bakarra da. Kaletarra. Gurasoak kaletik baserrira itzuli dira erretiroa hartu ostean. Aita-amaren eta semearen arteko harremana apur bat eten zen ezkonduz gero, edo hor nonbait. Aita pattal samar dabil. Ama kezkatuta dago, senarra ez dabil ongi eta. Gorka sarriago agertu zaie orain baserrian, bisitaz.

Kazetaria da Gorka. Lanean eskas antzean ari da azkenaldion. Bikote harreman txarrak eta gurasoekiko hartu-eman urrituak erreka bidera daramate. Roberto Gorosabel eskultorea elkarrizketatu behar du Gorkak. Lana gogoz kontra hartu du, ordea. Horrengatik edota bestelakoengatik zuzendariarekiko harremana are gehiago gaiztotu zaio. Kontuak kontu, Gorkak Madrilerako bidea hartu du Gorosabelekin, eskultorearen erakusketa bat dela eta”.

Irakurle lagun hori, hortik aurrera zuri dagokizu istorioaren gainerakoetan murgiltzea.

Segidan, bestaldetik edo bide beretik, gainerako beste inpresio batzuk:

Idazlearen hirugarren nobela da *Ezpainak arrainak bezala.* Aurretik *Ni naizen hori* (Txalaparta, 1992) eta *Amaren begietan* (auto-ekoizpena, 1995) kaleratu zituen. Ez ditut irakurrita. Karlos Gorrindoren gazte literatura irakurri dut gehienbat. Gustura irakurri izana gogoratzen dut. Egiari zor, Karlos Gorrindo eleberrigileaz zertxobait gehiago esateko, azken nobela honi buruzko inpresio sendoagoak emateko, haren aurreneko bi nobelak irakurriak izan gura –edo behar– nituzke. Atx! Euskal literaturaren pasaia oso da zabala eta oparoa, ezin eremu osoa urratzera heldu.

Horiek horrela, hona bere nobelen beste ezaugarrietako bat: ETAko kideen presentzia. *Ni naizen hori* eta *Amaren begietan* halaxe da, baita azken honetan ere. Modu eta neurri ezberdinez bada ere.

***Ezpainak arrainak bezala* nobela obsesio baten kontakizuna da.** Nago halaber, ez eta den nobelagilearen berezko bizitzaren alderdi bat kontatzeko modu obsesiboaren ondorioz.

- ▶ (A) iruzkin literarioak
- ▶ (B) literatura
- ▶ (C) politika
- ▶ (D) kulturgintza
- ▶ (E) gizartea
- ▶ (H) endaika
- ▶ Antzerkia
- ▶ Artea
- ▶ Azpiegiturak
- ▶ Bertsolaritza
- ▶ Dantza
- ▶ Ekonomia
- ▶ Energia
- ▶ Erlijioa
- ▶ Euskara
- ▶ Hedabideak
- ▶ Hezkuntza
- ▶ Historia
- ▶ Hizkuntzak
- ▶ Jaiak
- ▶ Kirola
- ▶ Musika
- ▶ Natura
- ▶ Nazioartea
- ▶ Osasuna
- ▶ Politika saioak

ote den nobelagilearen beraren bizitzaren alderai dat kontatzeko modu obsesiboaren ondorioa.

Nago Gorrindo ongi moldatzen dela bere “obsesioak” ipuinetan txertatzen dituenean. Aldiz, nobela eraikitzerakoan –nobela honetaz baina ezin dut taxuz idatzi, egiari zor-
desioek azkarregi ote daramatzate bere burua eta luma? Burua eta teklatura? Sarritan, bere
personaiak hizkuntzak obsesionatuta edo harrapatuta ote dauden nago. Pertsonaiak beren
berbetan errepikatzen dira sarri. Nobelagileak lar azkar idazten ote duen nago, bere barne grina
hustu beharrez. Nobelaren trama eta bilbapena bihozkaidek gidatuago ote dauden nago, buru
jardun pusatu batek baino.

Nago Karlos Gorrindo idazleak pausatuago idatziko balu, hizkuntza umotuagoa
lortuko lukeela, eta nobela bilbatzean hariak sendoago lotuko lituzkeela ere bai. Ipuingintzan
“obsesioak” urtzen dituen nola, nobelagintzan uztartuko balitu, bizitzako bere “obsesioak” uxatuko
balitu, menturaz, arrainen ezpainen higidura “ulertzera” iritsiko ginatke. Bistan da, gurari hori ere,
nire larregizko “obsesioa” baino ez da. Obsesio antzua, naski.

Tira, horiek nire irudikoak baino ez dira. Inpresioak. *Paroles* alegia.



Iruzkina idatzi

Zure e-posta helbidea ez da argitaratuko. Beharrezko eremuak * markatuta daude

Izena *

E-posta *

- ▶ Saillkatugabeak
- ▶ Zientzia eta teknologia
- ▶ Zinema

AZKEN BIDALKETAK

- ▶ Idazlea bizitzaren obsesioak harrapatua
- ▶ Hauxe epitafla puska!
- ▶ Bizitza: mundu ororen pisua
- ▶ Aitzina joan arau, harea (h)areago
- ▶ Ametsetan, segi dezagun

IRUZKIN BERRIAK

- ▶ karlos(e)k EAJk
independentziaren
aldarrikapenari nola, ezker
abertzaleak amnistiarenari?
bidalketan
- ▶ Norastorgarlensiu(e)k
Memoriaz II (Gabriel Arestiren
omenez) bidalketan
- ▶ Mikel Asurmendi(e)k Now!
Happy new year bidalketan
- ▶ patxi gaztelumendi(e)k Now!
Happy new year bidalketan
- ▶ Mikel Asurmendi(e)k
Memoriaz II (Gabriel Arestiren
omenez) bidalketan

Webgunea

Iruzkin

Ondorengo XHTML etiketa eta atributuak erabil ditzakezu: <abbr title="">
<acronym title=""> <blockquote cite=""> <cite> <code> <del datetime="">
<i> <q cite=""> <s> <strike>

Bidali >

ARGIAko Blogarien Komunitatea - CC-BY-SA